



## **ERBESTEKO ELURRA. Felipe Juaristi**

Bilduma: Narratiba, 121

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 256

Salneurria: 18 €

Argitalpen data: 2019-11-25

ISBN: 978-84-9109-494-4

Donostia, 2019ko azaroak 26

Adiskide batek kontatu dit Brasileko espetxeetan badela presoentzako programa bat zigor-egunak laburtzeko. Preso dagoenari lau egun kentzen dizkiote, irakurtzen duen liburu bakoitzarengatik, literatura, filosofia edo klasikoren bat bada. Amaitutakoan saiakera labur bat idatzi behar du, liburua ulertu duen ala ez erabaki dezaten. Preso dagoenak hamabi liburu irakur ditzake urtean, berrogeita zortzi egunetako murrizketa lortzeko. Berria bitxia da, baina are bitxiagoa programaren atzean dagoen ideia. Nonbait, programa ezarri dutenek pentsa dezakete literaturak alda dezakeela irakurlearen bizitza, jendea ere alda daitekeela.

Garai batean uste genuen literaturak mundua alda zezakeela. Orain etsita, pozgarri zaigu irakurlearen bati bizitza aldatzeko baliabideak ematen badizkio, horrek esan nahi baitu norbaitek irakurtzen duela. Eta pozgarri zaigu ohartzea literaturak badituela bere jarraitzaileak, bere zaleak, bere gurtzaileak, zenbat diren ez badakigu ere, edo, askotan, jakiteko gogorik ez badugu ere.

Walter Benjamin pentsalariak Nikolai Leskov idazle errusiarrari eskainitako hitzaurreko testuan adierazi zuen kontatzeko artea ezer ez zela, galtzen ari zela kontuak esateko sena. Hori 1936.ean idatzi zuen. Gure garaira etorrita, gero eta bakanagoak dira zerbait ongi kontatzeko gauza diren gizon-emakumeak. Eta gero eta ohikoagoa da kontalariengandik, alegia beren bizitzaren zati edo izpiren bat kontatu nahi digutenegandik ihes egiteko joera, ez dakigulako zer esango diguten, ez garelako inortaz fidatzen, eta gure intimitatearen atak itxi egin ditugu, besteengandik ezer irits ez dadin guregana. Ezezagun zaigun orok izutzen gaitu.

Ez dugu besteen esperientziaren berri entzun nahi, gurearekin aski dugulakoan. Eta hori bera galbide zaigu. Kontraesanez betetako munduan bizi gara, gaur beltz dena bihar zuri bilaka daiteke, gaur erdigune dena bihar ertz izan daiteke, gaur zero dena bihar infernu egin daiteke. Ezer ez dago irauten duenik. Garai batean historiak eta ipuinak kontatzen ziren ikasteko. Orain egunkariari lapurtzen dizkiogun apurrez elikatzen gara, gehiegi ikasteko beldurrez. Bideoak irratiko izarra hil zuen bezala, informazio idatziak komunikazioa hil du, eta horrekin batera kontatzeko artea.

Eleberri baten aurkezpen-ekitaldian gaude, beraz, pentsa dezakegu zerbaiteko balio duela idazteak. Niri, egia esan, baliagarri izan zait eleberri hau burutzea. Duela sei urte hasi nintzen, Madrilen nengoelarik, udako egun bero eta erregarriak igarotzen nituela, bai gauzez eta bai egunez. Ez nuen erbestean ote negoen sentipenik batera, pozik bizi nintzen, alai bizi nintzen, libre samar bizi nintzen, libre izan gaitezkeen neurri eta moduan. Pertsonaia bat nuen buruan, iraganeko gertaera baten kariaz barneko mina ezin kendurik bizi dena. Eta une batean, dena utzi eta desagertu egiten da. Hori da eleberriaren hari nagusia. Kazetari batek aurkitu beharko du zein zen desagerketa horren arrazoia, zergatik joan zen dena utzita kanpora, zerk bultzatu zuen alde egitera. Azken finean, denok nahi dugu, nolabait, guri egindako kalte edo minari amaiera ematea, edo guk egindakoa ezabatu ezin bada, bera leuntzea edo goxatzea. Erredentzio nahia da, Orixeren hitzetan *eroskundearen* nahia. Baina bizitzan zaila bada halakorik egitea, fikzioan lor daiteke, alegia literaturaren bidez.

Izenburua, *Erbesteko elurra*, François Villon poetaren hitz batzuen zordun da. Berak idatzi baitzuen “Oú sont les neiges d’antan”, “baina non ote dago iazko elurra!”, Matías Múgicaren itzulpenaren arabera. Villon oso estimatua dudanez, zertxobait etxekotu dut. Bestalde, Madrildik etxera etorrita eta astia dezente nuenez, maitasunari buruzko saiakera bat idazten hasi nintzen. Gaiaz etxean ditudan liburu guztiak irakurri nituen, ondorio batera iristeko: “ez dakigu maitatzen”. Seguru asko ez dakigulako maitasuna zer den. Maitasunaren esanahiari beste ideia asko erantsi dizkiogu: errukia, desira, babesa, kontsolamendua. Askotan maitasuna bakarrik ez egoteko beharra da, ez dakit...

Eleberriko pertsonaiak maitasunaren bila dabiltza, baina ez daude seguru aurkituko ote duten. Emakumeek indar handia dute eleberrian, emakumeak direlako munduaren sostengu eta zutabe, beraiek askotan horretaz ohartu ez badira ere. Gizatasuna zabaltzen dute, daudenean daudelarik, munduari zentzua ematen diote, mundua idazten dute gorputzez eta arimaz.

Lehen esan dut bizitzan zaila dela erredentzioa, egindakoak ez baitu atzera bueltarik. Inor ez da bakarrik bizi, ordea. “Inor ez da uharte”, John Donnek idatzi zuen bezala, eta, gainera, inor ezin da bakarrik bizi. Bakardadera kondenaturik dagoena, identitaterik gabe bizitzera dago kondenaturik, identitatea besteekiko harremanetan sortzen eta garatzen baita. Gizakiok ez gara onak, ez gaiztoak; ez gara aingeruak, ez gara deabruak. Batzuetan loreak ematen ditugu; besteetan, hostoak botatzen hasten gara.

Pertsona onak ezagutu ditut, asko, eta onak ez direnak ere, saldoka, baina denak dira gizaki, denak dira gizatasunaren multzo eta puska. Kontzientziarik ez duten pertsonak ezagutu ditut, baita kontzientzia ona dutenak ere. Kontzientzia ona askotan mozorroa baino ez da, erruduntasunaren benetako aurpegiari ez begiratzeko, bera ez ezagutzeko. Mozorroa da gure bigarren azala, batzuetan. Era berean, erruduntasunaren labanak egindako zauriak sendatu ezinik dabiltzanak ere ezagutu izan ditut. “Kontzientzia txarra” deitzen diote psikoanalistek horri; Freud eta Nietzchez geroztik, errudun kontzientzia ere dei diezaiokegu. Zerbait gaizki egin izanaren karga ezin arindu. Helduok ez gara inozente, errugabe izan bagaitezke ere. Inozenteak soilik haurrak dira, edo santuak bestela, baita, haur edo santu ez izanik ere, haur edo santu pentsamoldea dutenak. Gure gizartean badira halako pertsonaiak eta eleberrian ere bai. Baina ez dago inozentzia eskuratzerik, nahi bada ere: egindakoarekin bizi beharra dugu, egindakoari erantzun behar diogu, gure gogoaren arabera edo gure erantzukizunaren arabera. Helburu ona erdiesteko bitarteko okerrak erabiltzen dira batzuetan, nahi ez diren ondorio gaiztoak ekarriz. Eta, besteetan, ekintza on eta zuzen baten izenean, triskantza eta zoritxarra baino ez da zabaltzen bazterretan, helbururik lortu gabe. Noiz jakin zuzen jokatu dela? Eta zuzen jokatu ez bada, nola erantzun? Bizitza tentsioa da, eman zaigunaren eta lortu nahi genukeen artean, iraganaren, orainaren eta geroaren artean, errealitatearen eta gogoaren artean, munduaren eta bizitzaren artean, mundua ez baita bizitza.

Eleberri batek adierazten digu, azken finean, iragana oroimenean eta geroa gogamenean bizirik daudela.

Sinesmen bat badut, errotua, denok alda gaitzkeela da, hala nahi izanez gero. Aldatu nahi dugu: aldaketaren bila gabiltzan izakiok gara. Askatasuna dugu, gure bizitza erabat aldatzeko ez bada, zertxobait kanbiatzeko. Baina zaila zaigu aldatzea, beti dugu zerbaiten falta. Badakigu zer den ona guretzat, baina beti okerrena dugu aukeratzen. Peter Handkek adierazten du munduaren esperientzia munduaren pisuaren esperientzia dela, munduaren zama astuna. Eta ikusirik ez dugula ezer aldatzen, sentiturik gure bizitzak ere ez ditugula gure esku, sumaturik ziurtasunik ez dugula eta ez dugula sekula aurkituko, orduan sufritzen dugu. Eta sufritzen dugulako geure baitan ixten gara, itxaroten dugu, aldaketa berez, patuak aginduta edo, etorriko delakoan. Baina patuak aspaldi alde egin zuen gure bizitzetatik. Ez, ordea, esperantzak, esperoan egoteak. “Esperantzarik gabe ezin olibondorik landatu”, Sciasciaren liburu baten izenburua da.

Patuaren eta esperantzaren aurkaria da erredentzioa. Denboraren mugak apurtzen ditu, eta beste denbora bat ezartzen, non iragana eta geroa orain diren.

Hori da liburuaren mezua, besterik gabe.

Felipe Juaristi